



Pertsona Etorikinei
Pertsona Etorikinei
Orientabidea
emateko
emateko
Gida
Gida

GTBAioa

PERTSONA ETORKINEI ORIENTABIDEA EMATEKO GIDA



ETXEBIZITZAETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Inmigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003



Argitaraldia: 1.a, 2003ko ekaina

Ale-Kopurua: 5.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Maketazioa: Infopolis 2000 S.L.

Inprimaketa:

ISBN: 84-457-1994-7

L.G.:

AURKEZPENA

Gida honetako informazioaren helburua egunero-egunero inmigrazioaren eta gizarteratzearen esparruan lanean diharduten langileen lan teknikoari eta laguntza-lanari babesa eskaintzea da. Gidaren edukia, berriz, atzerriko pertsona etorkinen, gure hiritar berrien, orientazio-lana erraztera bideratutakoa da.

Badakigu ezin hurbil gaitzkeela gizarte-maila homogeneousat harturiko pertsona etorkinengana; nortasun indibidual eta sozial propioa duten eta egokitze-prozesu ezberdinetan diren etorkin ezberdinengana baizik. Modu honetan, bizimodu ezberdinak ulertzeko eta jarrera-kodeak interpretatzeko era ezberdinak sakonki errespetatuz, beste aurrera pausu bat emango dugu orain ulermenaren eta gizarte-kohesioaren eskizian.

Gure xedea ez da atzerriarekin eta inmigrazioarekin loturiko instantzia eta prozedura ezberdinetan zehar ibilbide zehatza egitea; pertsona hauei, gure gizartean egokitze-prozesuari ekin diezaieten, behar dituzten baliabide eta zerbitzuen berri ematea eta hauek lortzeko erraztasunak ematea baizik.

Zentzu honetan, kulturen arteko bizikidetzaren eta aniztasunaren gain eraikiriko berdintasun konplexuaren aldeko ahaleginean, guztion lana beharrezkoa da. Eta berdintasun hau lortzeko era bakarra elkar ezagutzea eta gure ingurunea ezagutzea da. Hori dela eta, lan honek eskubideen urraketa zailduko duen eta hiritarren eskubide eta betebeharrak oinarri izango dituen integrazioa errazteko tresna izan nahi du, proiektu komun baten bidez.

Gida helburu hau lortzeko lagungarri izango delakoan gaude.

Boladji Omer Bertin OKE
Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Zuzendaria





AURKIBIDEA

7 SARRERA

8 INFORMAZIO JURIDIKOA

10 ERROLDATZEA

11 DOKUMENTAZIOA

14 ETXEBIZITZA

16 GIZARTE ZERBITZUAK

17 LAN MUNDUAN SARTZEA

19 HEZIKETA

21 OSASUN LAGUNTZA

22 PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA

23 KOLEKTIBO BEREZIAK

ERAUSKINAK

25 GAIARI LOTURIKO KONTZEPTUEN GLOSATEGIA

36 ZERBITZUEN DIREKTORIOA





SARRERA

Baliabide eta zerbitzuak etengabe zabaltzearen ondorioz, gero eta bananduago daudenak, atzerriko pertsona etorkinen kolektiboarentzat bereziki zaila da hauek behar bezala ezagutzea eta eskuratzea. Izan ere, pertsona hauek beren egoera eta integrazio-ezaugarriak direla eta, instantzia jakinetatik urrun egon ohi dira.

Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzak pertsona hauek sistematizatzeko eta hurbilarazteko konpromisoa hartu du. Horretara bideratuko ditu gizarte-langileak eta gizarteratze-eragileak, eta baliabide publiko eta pribatuei buruzko informazio eguneratua emango du, baita populazioko sektore honi dagozkion eskubide jakinei buruzkoa ere.

Hemen aurkezten ari garen “*PERTSONA ETORKINEI ORIENTABIDEA EMATEKO GIDA*” erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoan kolektibo honi eskaintzen dizkioten zerbitzu eta baliabideak argitalpen bakar batean biltzeko helburuz sorturikoa da; pertsona etorkinek alderdirik oinarrizkoenetan dituzten beharrak asetzeko, baita sentsibilizazioarekin, salatzearekin eta bizikidetzarekin loturiko esparruetan dituzten gabeziak asetzeko ere.

“*PERTSONA ETORKINEI ORIENTABIDEA EMATEKO GIDA*” bilduriko informazioa 11 ataletan banatu da. Atal hauetako bakoitzak kolektibo hau euskal hiritarrek berdintasunean gizarteratzearekin loturiko funtsezko alderdiak aipatzen ditu erraz eta labur.

Informazioa arinagoa eta erosoagoa izan dadin, gaiari loturiko terminoen glosategi bat eta Gidan aipaturiko erakunde eta elkarte guztien izenak biltzen dituen direktorio bat gehituko dira.



INFORMAZIO JURIDIKOA

Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta libertateei buruzkoa, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren arabera aldatua.

864/2001 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta libertateei eta hauen gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren arabera berriturikoa, betearazteko Araudia onartzen duena.

5/1984 Legea, martxoaren 26koa, Egoitza Eskubideari eta Errefuxiatu-baldintzari buruzkoa, maiatzaren 19ko 9/1994 Legearen arabera aldaturikoa.

203/1995 Errege Dekretua, otsailaren 10ekoa, Egoitza Eskubideari eta Errefuxiatu-baldintzari buruzko martxoaren 26ko 5/1984 Legea, maiatzaren 19ko 9/1994 Legearen, uztailaren 20ko 864/2001 Errege Dekretuaren eta uztailaren 20ko 865/2001 Errege Dekretuaren arabera aldaturikoa, aplikatzeko Araudia onartzen duena.

178/2003 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, Europako Batasuneko Estatu kideetako eta Europako Ekonomiaguneari buruzko Hitzarmeneko partaide diren beste estatuetak nazionalen sarrera eta iraunkortasunari buruzkoa.

Espainian bizi diren atzerriko pertsonak Espainian sartzeko, bertan egoteko eta lan egiteko dituzten eskubideak zehazteko bi erregimen ezberdin daude atzerritar hauen jatorriaren arabera. Erregimen hauek erregimen komunitarioa eta erregimen orokorra dira.

Erregimen orokorra

Espainiako atzerriko pertsonen eskubideak eta libertateak eta hauen gizarteratzea arautzen duen Lege Organikoaren aplikazioaren arabera, atzerriko pertsona Espainiako nazionalitatea ez duena da, Espainia partaide den lege berezietan eta Nazioarteko Itunetan ezarritakoari kalterik eragin gabe.

Espainiako legeriak Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarrei beren egoera dokumentalaren arabera eskubide batzuk ematen dizkie; baina **pertsonen eskubideak**, giza duintasunari dagozkionak, **pertsona guztiei zor zaizkienak dira**, beren legezko egoera dena delakoa izanda ere.

Erregimen komunitarioa

Erregimen komunitarioa, berriz, Europako Batasuneko (EB) Estatu kideetakoak diren (**Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Irlanda, Italia, Luxemburg, Portugal, Erresuma Batua eta Suedia**) pertsona nazionalai ezartzen zaiena da, baita Europako Ekonomiaguneko (EEE) Hitzarmeneko partaide diren gainerako Estatuetoakoak diren pertsona nazionalai (**Norvegia, Islandia eta Liechtenstein**) eta ondoren aipatzen direnen familiartekoei ere (beren nazionalitatea zeinahi dela ere):

- ✘ ezkontidea;
- ✘ bere seme-alabak eta ezkontidearenak;
- ✘ bere gurasoak eta ezkontidearenak.



ERROLDATZEA

Espainian bizi nahi duten pertsona etorkin **GUZTIEK**, legalki izan edo izan ez, beren egoera administratiboa dena delakoa izanik ere (baimena izan edo izan ez), erroldatzeko aukera dute eta erroldatu beharra daukate.

Erroldarako ematen diren datuek izaera konfidentziala dutela eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesten dituela jakitea garrantzitsua da.

Erroldan izen ematearen abantailak honakoak dira:

- ✘ Osasun-laguntza bermatzen du.
- ✘ Froga ona izan daiteke etorkinen batek udalerrian bizitzen daraman denbora egiaztatu behar izanez gero.
- ✘ Udaleko Gizarte Zerbitzuetarako aukera eskaintzen du.
- ✘ Udal bakoitzak bertako bizilagunen bizitza-baldintzak hobetzeko garatzen dituen egitarauetan parte hartzeko aukera eskaintzen du; etxebizitza, hezkuntza, enplegua, osasuna, kultura, kirola edota aisialdia gisako esparru garrantzitsuetan, hain zuzen ere.
- ✘ Udalerrri bakoitzeko gizarte-zerbitzuek, egoera zailetan bizi diren pertsonen informazioa eta orientabidea eskaintzeko eta beren behar jakinak asetzeko gauzatzen dituzten jardueren onuraz baliatzeko aukera ematen dute. Aipaturiko jarduerak pertsonak gizarteratzeko baliagarri dira.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Bizi zaren Udalerriko Udaletxera jo.

DOKUMENTAZIOA

Espainiako lurraldean den zeinahi etorkinek bere nortasuna egiaztatuko duen dokumentazioa mantentzeko eskubidea eta betebeharra du. Dokumentazioak jatorrizko estatuan edota datorren herrialdean eskumena duten autoritateek behar bezala eginikoa izan beharko du. Espainian duen egoera egiaztatuko duen dokumentazioa ere bere esku eduki beharko du.

Etorkinen nortasunaren, herrialdean daramaten denboraren eta egin duten lanaren berri ematen duten egiaztatagiriak ezinbestekoak dira titulartasunaren berri jakiteko ez ezik atzerriko etorkinen eskubideak bermatzeko eta beren gizarte- eta lan-mailako integrazioa errazteko ere.

Dokumentazioari dagokionez atzerritar bakoitzak izan dezakeen egoerak baimen ezberdinek duten baliotasun-epeari arreta berezia eskaintzea eskatzen du: dokumentazioa indarrean den edota berrikuntzarik behar ote duen begiratzeari garrantzitsua da, horrelakorik egin behar izanez gero bide egokiak zein diren bilatu eta izapide eta espedizioak egiteko ardura duten erakundeetara jo behar baita.

Dokumentu Identifikatzaileak

Atzerriko pertsona etorkinek beren burua identifikatzeko jatorrizko herrialde- eta Autoritateek luzaturiko agiriak erabil ditzakete (pasaporte edota, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalen kasuan, indarrean den nortasun-txartela) edota, bestela, **atzerritarraren txartela** erabil dezakete; **Polizia Nazionalaren Polizia Komisaldegietako Atzerritarren Bulegoetan** eska ditzaketenak, Bilbon, Gasteizen, Donostian edota Irunen. (*Ikus 37. orrialdea*)

Iraunkortasun Estatus edo Egoerari buruzko Egiaztatagiriak

Espainian legalki bizi nahi duten Europako Erkidegoko atzerriko pertsonak herrialdean bizi baten bidez sarturikoak izan beharko dute, honen beharra den kasuetan. Legaltasun-egoera mantentzeko, berriz, behar bezalako egoitza-baimena eduki beharko dute Espainian diren bitartean.

Espainiako autoritateek egoitza-baimen ezberdinak ematen dituzte kasu





bakoitzaren baldintzen arabera (ikasleak, langileak, babes-eske datozenak, etab.).

Egoitza-baimenak irabazizko jarduerak egiteko ematen direnean, norberaren kontura nahiz besterenera, loturik dauden lan-kontratuaren iraupen berbera izan ohi dute eta izapideak egitea **Lan eta Gizarte Gaietako Probintziako Sailaren** esku egon ohi da -Lurralde Historiko bakoitzeko Gobernuaren Ordezkaritzaren esku. (*Ikus 37. orrialdea*)

Aitzitik, **lanari loturikoak ez diren** erregimen orokorreko **egoitza-baimenak** edota **egoteko baimenak** lortzeko eskariak **Polizia Nazionalaren Polizia-etxeetako Atzerritarren Bulegoetan** aurkeztu beharko dira, Bilbon, Gasteizen, Donostian edota Irunen. (*Ikus 37. orrialdea*)

Lan egiteko Baimena ematen duten Agiriak

Espainiako lan-munduko autoritateek lan-baimen mota ezberdinak ematen dituzte lan-motaren eta honen iraupenaren arabera.

Halaber, **ohizkanpoko egoerak** eraginda egoitza-baimena lortu duten atzerriko pertsonak irabaziak lortzera bideraturiko jarduera laboral edo profesionala egin dezakete, beren nahiz besteren kontura, egoitza-baimena indarrean den bitartean.

Erregimen orokorraren baitan **lan-baimena lortzeko edo berritzeko egin-iko eskaerak** nahiz **lan egiteko baimena** Lan eta Gizarte Gaietako Probintziako Bulegoan aurkeztu beharko dira —Lurralde Historiko bakoitzeko Gobernuaren Ordezkaritzan. (*Ikus 37. orrialdea*)

Orientabide juridikoa

Legaltasun-egoeraren aldaketak, eta oro har egoera hau arautzeko izapideei loturiko gai orokorrak eta horiek etorkizunean mantentzeko erari buruzkoak izan ohi dira etorkinen kolektiboaren eskaerarik nagusienak.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hiru Lurralde Historikoetako Abokatu Eskolekin batera, EAEko hiru hiriburuetan **atzerriko pertsona etorkinei arreta Juridiko eta Soziala emateko Zerbitzua abian jartzea sustatu du EAEn (HELDU)**, pertsona etorkinen egoera juridikoari buruzko arreta, diagnosis eta orientabidea emateko helburuz. Arreta hau lan- eta egoitza-baimenari loturikoa izango da funtsean, gizarteratze-prozesu baten emaitza gisa eta Etorkinei buruzko Euskal Planaren lerro nagusietan ezarritako udal oinarriko atzerriko pertsona etorkinak babesteko sare publikoaren baitan. (*Ikus 37. orrialdea*).

Azalaren koloreak, jatorriak, kultuak edota ohiturek eraginiko balizko bazterkeria-delitu baten aurrean, atzerriko pertsona immigranteek **Biktimei Laguntza eskaintzeko Zerbitzuetara** ere jo dezakete. Aipaturikoak EAeko hiru hiriburuetakoko Justizia Jauregietan daude kokaturik eta bertan aholkularitza eta orientabidea emango diete beren eskubideei eta jarraitu beharreko urratsei buruz (*Ikus 37. orrialdea*)

Halaber, sexu-esplotazioa edota tratu txarren biktima diren atzerriko pertsona etorkinek oinperatze-egoera horri aurre egiteko beharrezko babes eta laguntza aurkituko dute aipaturikoan.

Bestalde, **Euskal Herriko defendatzaile den Arartekoak** nahiz **Espainiako Defendatzaileak**, Administrazioak zeinahi zerbitzu edo kudeaketa egiterakoan eginiko gehiegikeria-, arbitrariotasun-, bazterkeria-, akats- edota arduragabekeria-kexei erantzuten diete. Arreta berezia ematen zaien taldeen artean pertsona etorkinen kolektiboa dago. (*Ikus 38. orrialdea*)

Era berean, doako aholkularitza juridikoa, eskubideei eta legearen barnean mantendu ahal izateko beharrezko baldintzen tramitazioari, lan-baimena lortzeko erari, nazionalitate-eskaerei... buruzko informazioa ematen duten gobernu kanpoko elkarte eta erakundeak ere badira. (*Ikus 41-44. orrialdeak*)



ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren arazoak gizarteko geruzarik txiroenei eragiten die oro har, baina etorkina den pertsona batentzat halako bat lortzea zaila da bereziki.

Iritsi berriak diren pertsonak ostatu hartu ohi duten lehendabiziko etxebizitza **sare informala**ren bidez lorturikoa izan ohi da -familiaren, lagunen, nazionalitate bereko pertsonen bidez.

Oinarrizko sare honen osagarri gisa, zenbait **gizarte-erakundek** lehendabiziko uneetan atzerriko pertsonak izan ohi duten babes gabezia hori arintzeko baliabideak eskaini ohi dituzte.

Erakundeei dagokienez, zenbait udaletzek **udal abegi-etxeak** jarri dituzte abian behar larriko egoerei aurre egiteko. Zentro hauetan aterpea, mantenua eta lagun-taldea eskaintzen zaizkie denboraldi batez horren beharra duten pertsona guztiei, atzerritarrak izan edo izan ez.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO :

Bizi zaren Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo.

Toki batean kokatu eta halako segurtasun ekonomikoa lortu ostean, pertsona etorkinek etxebizitza erosteko aukera izan dezakete.

Etxebizitza bat erosi edo alokatzerakoan, etxebizitza-agentzien esku dauden ekimen pribatuez gain, ondoko zerbitzu publikoek bideraturiko eskaintza da nabarmentzekoa:

Gizarte Etxebizitzak eta Babes Ofizialekoak

Eusko Jaurlaritzak etxebizitza-zerbitzu bat jartzen du hiritarren esku. Bertan, babes ofizialekoak nahiz libreak diren etxebizitzaren erosketari, alokairuari edota birgaitzeari buruzko promozioei, laguntzei eta zerbitzuei bideraturiko informazioa ematen da.

Informazio gehiago lortzeko **Etxebidera** edota Hiru Lurralde Historikoetako **Etxebizitzaren Ordezkaritzara** jo daiteke. (*Ikus 38. orrialdea*)

Erakundeek kolaboratzaile diren erakundeetako bulego guztietan ere izaten da honi buruzko informazioa.

Etxebizitzari Bideraturiko Udal Programak

Udal batzuek etxebizitza erosteko edo alokatzeko promozio eta laguntzak jartzen dituzte hiritarren eskura. Honi buruzko informazioa **bizi zaren udaleko hiritarrei arreta eskaintzera zuzenduriko zerbitzuetan** eska zenezake.





GIZARTE ZERBITZUAK

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, udalean zehar banandurik daudenek, gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa, orientabidea eta kudeaketa eskaintzen dizkiete bere esku-hartzearen beharra duten pertsonei.

Zerbitzu hauen baitan orientabidea eta aholkularitza, etxez etxeko arreta eta era askotariko prestazioak sartzen dira (**familiari arreta, haurtzaroa, pertsona helduak, emakumezkoak, etab..**) eta aipaturikoen helburua komunitate honetan bizi diren pertsonek gizarteratze-prozesu normalizatua eta beren izatearen garapen osoa lor dezaten beharrezko baliabideak ematean datza.

Zerbitzu hauek guztiak, publiko nahiz hitzarturikoeak, Euskadin egoiliar gisa bizi diren atzerriko inmigranteei ere arreta eskaintzen diete **beste edozein hiritarri bezalaxe; berdintasunean**. Eta etorkinen egoera legalari, sozialari, kulturalari, ekonomikoari, familiarrari... buruzko alderdi ugari jorratzen saiatzen dira.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Bizi zaren Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo.

LAN MUNDUAN SARTZEA

Lan-merkatuan sartzeko, atzerriko pertsona etorkinak Enpleguko Institutu Nazionalean (EIN) edota Euskal Lan Zerbitzuan (LANGAI) eman dezake izena.

Zerbitzu hauen bidez enplegu-eskaintzak izan ditzake, kontratu bat sinatu edo erregistratu dezake, langabezia-prestazioak erdietsi ditzake eta herrialdean bizi dela egiazta dezake.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Etxebizitzari dagokion EINeko bulegora, Enplegu Orientazioko Euskal Zerbitzura (LANGAI), edota lan-merkatuan sartzera eta honi buruzko informazioa ematera bideraturiko Zerbitzu Publikora jo.

Lan-munduan sartzeko laguntzak

Enplegu Orientazioko Euskal Zerbitzua lanpostua aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendurikoa da, eta bestelako baliabide publikoekin loturik dago (LANGAI Euskal Lan Zerbitzua, Lanerako Prestakuntza, Praktikak enpresetan, Enplegu eta Prestakuntza Programak, Auzolan Programa...)

Zerbitzu honek lanerako zailtasunak dituzten pertsonen laguntza eskaini ahal dieten erakunde eta eragile sozialak biltzen ditu, lehenetsuna emanez baldintza bereziak aurkezten dituzten haiei; hala nola etorkinak diren atzerriko pertsonen, dela adinaren, dela sexuaren, dela heziketaren eraginez lan-munduan sartzeko arazo jakinak dituztenei edota gizarte-ongizateko programetan parte hartzea-gatik enplegu-orientabideari dagokionez esku-hartze koordinatuaren beharrean diren bestelako kolektiboak. (*Ikus 39. orrialdea*)





Ematen den laguntzak enpleguaren lorpenari eta mantenuari loturiko aldi asko hartzen ditu bere baitan. Laguntza pertsonalizaturikoa izan ohi da eta hezkuntza-baliabide ugari eskaintzen ditu, laguntza eta jarraipena, honekin guztiarekin enplegua lortzeko aukerak gehitu daitezzen eta, ahal den heinean, etorkizunean ere mantentzen daitezzen.

Enplegu Orientazioko Zerbitzura borondatez joan nahi dutenek, edota bertako informazioa jaso nahi dutenek, zeinahi erakunde kolaboratzailetara jo ahal izango dute edota erabiltzaileari arreta eskaintzera bideraturiko telefonora dei egin. (*Ikus 39. orrialdea*)

Heziketa eta Lan-munduan sartzea

Lanbide Heziketako ikastaroen eskaintza zabala da eta Lanbide Heziketa ez ezik Etengabeko Lanbide Prestakuntza ere hartzen ditu bere baitan, Hobetuzen bidez, baita Lanerako Lanbide Heziketa ere, gizarteratzen zailak diren kolektiboentzat; langabe diren pertsona etorkinen kasua, esaterako.

Eusko Jaurlaritzatik lanbide-gaitasuna hobetzen laguntzeko ahalegin etengabea egiten ari dira, EAEn bizi diren pertsona guztiei zuzenduriko heziketa-programa ezberdinen bidez. (*Ikus 39. orrialdea*)

HEZIKETA

18 urte baino gutxiago dituzten atzerritar guztiek, beren egoera administratiboa dena delakoa izanik ere, Espainiako biztanleen baldintza berberetan heziketa jasotzeko eskubidea dute.

Heziketa izateko eskubidea honetan datza:

- ✘ Oinarrizkoa, doakoa eta derrigorrezkoa den irakaskuntzan sartzea.
- ✘ Norberari dagokion titulu akademikoa lortzea.
- ✘ Diru-laguntzen eta bestelako laguntzen sistema publikoan sartzea.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Gertuen kokaturiko ikastetxearekin edota lurraldera iritsitako unean den Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzarekin hartu-emanetan jartzea, urteko zeinahi unetan iritsita ere.

Eskola Organoak

Ikastetxe eta institutuetan hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektoreetako ordezkariak osaturiko organismo bat egon ohi da. Komunitate horretako kideak ikasleak, irakasleak, gurasoak, erakunde sindikalak, enpresa-erakundeak, udal-etxeak, etab. izan ohi dira.

Erakunde honek —Eskola Kontseiluak— Ikastetxeko funtzionamenduari buruzko alderdirik garrantzitsuenei buruzko erabakiak hartzen ditu. Beren seme-alabak bertan eskolaturik dituzten pertsona etorkinek ere aipaturiko kontseiluan **parte har dezakete, are gehiago, parte hartu beharra daukate** beren seme-alaben mesedetan. Ikastetxeak funtzionamendu hobea izan dezan





sorturiko Guraso Elkarteak (GE) ere izaten dira. Bazkide egiteko urteko zenbateko bat ordaindu behar izaten da eta diru hau eskolaz kanpoko jarduerak egitera, materialak erostera, etab. bideratzen da. Hauetan **parte hartzea komenigarria** bada ere, ez da beharrezkoa.

Eska ezazue informazioa dagokizuen ikastetxean.

Tituluen Homologazioa eta Baliozkotzea

Pertsona etorkinak tituluren bat baldin badu, unibertsitarioa izan edo izan ez, eta Espainian eragin ofizialak izan ditzan nahi badu Espainian tituluak duen baliokidearekin **homologatu** beharko du.

Espainian Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioaren eskumenekoa da atzerriko goi-mailako tituluen homologazioa egitea onartzea edo ukatzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero Gobernuaren Ordezkaritzan kokaturiko **tituluak homologatzeko eta baliozkotzeko Zerbitzura** jo behar da. (*Ikus 40. orrialdean*)

Alfabetatze Eskolak eta Pertsona Helduei zuzenduriko Ikastaroak

Atzerriko pertsona etorkinek Pertsona Helduei zuzenduriko Heziketa Zentroetara (HEE) jo dezakete. Aipaturikoak auzo eta udalerrietan barna kokaturik egon ohi dira, eta hauetan hezkuntza-prozesuetan parte hartzeko aukera izaten da. Prozesu honek **hizkuntzak ikasteko** (gaztelania eta euskara) edo **alfabetatzeko** aukera eskaintzen du, harik eta **Bigarren Hezkuntzako Graduatua** edota bestelako heziketa-programak lortu arte.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan informazio gehiago aurkituko duzu. (*Ikus 39. orrialdea*)

OSASUN LAGUNTZA

Bizi diren udalerriko erroldan izen eman duten atzerriko pertsona etorkinek, Espainiako hiritarren baldintza berberetan osasun-laguntza osoa izateko eskubidea dute.

Osasun zerbitzuak edukitzeko **beharrezkoa da Osasun Txartel Indibiduala (OTI)** edukitzea. Eskaerak dagokion Lurralde Historikoko **Osasunaren Unibertsalizazioaren Bulegora** zuzendu beharko dira.

Administrazioak laguntza emateko beharra du, Osasun Txartel Indibidualik ez edukiagatik ere, ondorengo baldintzetan diren pertsoneri:

- 🚫 **Larrialdi-kasuak**, gaixotasun larriak edo istripuak alta medikoa eman bitartean.
- 🚫 **18 urtez beherakoak.**
- 🚫 **Haurdun dauden emakumeak** haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean.

(Ikus 40.orrialdea)





PARTAIDEZTA SOZIOPOLITIKOA

Emakume eta gizonezkoek komunitate-bizitzan parte hartzea tinkoa, harmonikoa, demokratikoa eta benetako ongizatera bideraturikoa den gizarte-egitura lortzeko biderik eragingarriena da.

Euskal Autonomia Erkidegoan etorkinei sustapena eta bultzada emateko eta Espainian dituzten eskubide eta betebeharrak kontuan har daitezten lan egiten duten sentsibilizaturiko elkarteak asko dira.

Hauetan etorkinen populazioak hasierako kokatze-arazoak konpontzeko beharreko babesa eta laguntza bila dezake dohain eta modu eraginkorrean.

Halaber, atzerrikoak diren edota ez diren pertsona guztien parte-hartzeari irekiriko bestelako erakundeak ere badira (erakunde soziokulturalak, kirol-erakundeak, emakumeenak, auzotarrenak, ikerketara bideraturikoak, erlijiosoak, unibertsitarioak, artistikoak.etab.).

Zenbait pertsona etorkinek **aktiboki hartzen du parte** erakunde hauetan; beste zenbaitek, ordea, **elkarte propioa sortzea** nahiago izaten du, bere beharrak eta kolektiboarenak identifikatzeko eta lehentasunak ezartzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Kontsulta ezazue Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko lurralde-ordezkaritzetan hiritarren eskura jarriko EAeko elkarte eta erakundeen erregistroa. *(Ikus 40. orrialdea)*

KOLEKTIBO BEREZIAK

Adin txikikoak

Adin txikiko haurrak Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenetik eratorririko babes berezi batek zaintzen ditu, haurren nazionalitatea dena delakoa izanik ere; bestelako zeinahi iritziren gainetik adin txikikoarekiko interesa baita gailentzen dena. Atzerrikoak nahiz nazionalak izan, beren babesgabetasuna izan ohi da Hiru Lurralde Historikoetako **Foru Aldundietako Adin txikikoei Babesa emateko Zerbitzuen** esku-hartzea zehaztu ohi duena. (*Ikus 40. orrialdea*)

Preso dagoen populazioa

Preso dagoen populazioa gizartean zokoraturik egoteko arrisku handia duen kolektiboa da eta horien artean azpimarratzekoak dira atzerriko pertsona etorkinak. Pertsona hauei birgizarteratzen eta gizarteratzen laguntzeko badira zerbitzu eta programa bereziak, hala nola **Presondegietakoa Gizarte Zerbitzuak, SAOS edo SAER**, normalizazioa eta gizarteratzea lortzera bideraturikoak. (*Ikus 41. orrialdea*)


Halaber, badira preso dauden pertsona etorkinen ongizatearen eta gizarteratzearen alde egiten duten erakunde sozial eta erlijiosoak ere.

Ezkatuko bidaiariak

Estatuaren eskumeneko portuetara iristen diren ezkatuko bidaiariak letradun eta interpreteen laguntza edukitzeko eskubidea dute, iritsi direla jakin eta berehala eta Espainian sartzeko edota babesa eskatzeko asmoa dutela aditzera eman edo eman ez. Beren ahultasun-egoera bereziari erantzuteko, berehalako osasun-laguntza ematea beharrezkoa da.

Badira pertsona hauekin beren jarduerak garatzen dituzten gizarte-erakunde bereziak ere, eta araudia betez eta kolektiboaren oinarritzko eskubideak errespetatuz egiten dute lan.





Sasoikako langileak

Urtero atzerriko langile etorkin askok Arabako Lurralde Historikora jotzen du mahatsaren eta patata-biltzearen kanpaina dela eta. EAEn sektore horretako kontratazio-baldintza bereziei, ostatu hartzeko zailtasunei eta kolektibo honen eskolatze eta gizarteratzeko baldintzei buruzko arazoak konpontzeko beharrezko informazioa eta arreta eskaintzen duten **erakunde sindikalak** badira. (*Ikus 41. orrialdea*)

Aterpe eta Babes Eskatzaileak

Arraza, erlijio, iritzi politiko edota talde jakin batekoa izateagatik jazarpenen biktima izateko beldurrak diren eta beren jatorrizko edota bizileku duten herrialdetik ihes egiten duten pertsonen babes- edo aterpe-estatusa eska dezakete gure herrialdean.

Eskaera honen bidez Espainian egoteko behin-behineko baimena lor dezakete, eskumena duten Administrazio Publikoek emaniko gizarte-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuen onuraz balia daitezke, betiere baliabide ekonomikorik eduki ezean, eta lan- edo merkataritza-jarduerak garatzeko baimena lortzera ere irits daitezke.

EAEn badira gure herrialdera iritsi bezain laster aterpea eta babesa eskatzen duten pertsonen babes ematen dieten gizarte-erakundeak. (*Ikus 43. orrialdea*)

ERAUSKINAK

GAIARI LOTURIKO KONTZEPTUEN GLOSATEGIA

Dokumentu Identifikatzaileak

AIZ

Atzerritarren zenbakiak identifikatzeko balio du, eta Polizia Zuzendaritza Nagusiak ematen du legez izapideei hasiera ematen zaien lehendabiziko aldi edota atzerri-tartasun gaiari loturiko txostenen bat ireki denean. Emandako zenbakiak, luzaturiko dokumentu guztietan azaldu beharko du.

ⓘ Polizia Komisaldegia edo Atzerritarren Bulegoak (*Ikus 37. orrialdea*)

Atzerritarren Txartela

Atzerritarren Txartela Espainian legezko iraunkortasun-egoeran dauden atzerriko pertsonen dokumentazioa emateko bideraturiko dokumentu bakarra da. Txartel honek eman zaien baimen-motaren berri eman beharko du.

ⓘ Polizia Komisaldegia edo Atzerritarren Bulegoak (*Ikus 37. orrialdea*)

Kontsulatuko Inskripzioa

Kontsulatuko inskripzioa pertsona etorkinaren jatorrizko herrialdeko Kontsulatu edo Enbaxadan bideratzen den izapidea da, eta kontsulatuari pertsona hori Espainian bizi den informazioa ematean datza. Dena den, izen-ematea egin daitekeena da, egoitza-eta lan-baimena izan edo izan ez.

Pasaportea, Bidaia Dokumentua, Nortasun Agiri Nazionala edo Identifikazio Zedula

Espainian sartzeko eskubidea ematen duten agiriak eta, edozein kasutan, pertsona titularren nortasuna eta nazionalitatea zehazteko adinako datuak eduki behar dituztenak.

ⓘ Titularren jatorrizko herrialdeetan eskumena duten autoritateak edo horretarako ahalmena duten Nazioarteko Erakundeak

Estatus edo Egoeraren berri emateko Egiaztagirien eskaera

Dokumentu eta baimenak bideratzeko eskaerarik gehienak, zuzentzen diren organo administratiboetako erregistro-bulegoetan aurkeztu ahal izango dira; Gobernuaren Ordezkaritza eta Ordezkariordeztetan, Atzerritarren Bulegoetan, edota halakorik izan ezean, Polizia Komisaldegietan, Migrazioak Ordenatzeko Zuzendaritza Nagusian eta Poliziaren Zuzendaritza Nagusian (Atzerritarren eta Dokumentazioaren Komisaldegi Nagusian), ebazpena egiteko eskumena dutenean. Eskaera hauek, oro har Administrazio Publikoko zeinahi organotara bideraturiko eskaerak aurkezteko aurreikusitako tokietan ere aurkeztu daitezke (esaterako Posta Bulegoetan).

Eskaera-ereduak, doakoak direnak, beren kudeaketaren ardura duten unitateetan eta Interneteko informazio-orrietan ere (www.mir.es, www.mtas.es, www.igsap.map.es) eskura daitezke, eta edozein bitarteko erabiliz erreproduzi daitezke (fotokopiak, inprimagailuak, etab.).

Iraunkortasun egoerak

Agiririk gabeko pertsonak

Agiririk gabeko pertsona, gaindiezinezko arrazoiengatik, apatridia alde batera utzita, inongo herrialdetako autoritatek dokumentatu ezin duena da. Behin-behineko dokumentazioa, inskripzio-zedula eta dagokion egoitza-baimena eskatu behar ditu.

i **Polizia Komisaldegia edo Atzerritarren Bulegoa** (*Ikus 37. orrialdea*)

Babesa eta Aterpea

Errefuxiatu-baldintza Espainian babesa hartzeko eskaria egin eta baieztatu ebatzpena eman zaion pertsonari aitortuko zaio.

Babesa hartzeko eskubidea errefuxiatua jatorrizko herrialdera ez itzultzean eta dagoen herrialdetik ez kanporatzean datza, Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Hitzarmeneko 33. artikularen arabera, baita Espainian bizitzeko baimena ematean, beharrezko bidaia- eta nortasun-agiriak luzatzean eta lan- edo merkataritza-jarduerak garatzeko baimena ematean ere.

i **Polizia komisaldegia edo Atzerritarren Bulegoak** (*Ikus 37. orrialdea*)

Bisa

Lurralde nazionalen sartzeko legeak eskatzen duen funtsezko agiria da. Espainiako estatuko nahiz Europako Batasuneko inmigrazio, ekonomia edo segurtasun politiketan ezarritako irizpideen arabera da.

Bisa-mota ezberdinak daude (iragaitakoak, egonaldikoak, egoitzakoak, etab.) eta aipaturikoa salbuesten den egoera bereziak ere badira. (*ikus bisari buruzko salbuespena*)

i **Enbaxada, Jatorrizko Herrialdeko Espainiar Kontsulatuak, edo Kontsulatu Gaietako Zuzendaritza Nagusia** (*Ikus 37. orrialdea.*)

Bisa Salbuespena

Atzerritarren legeak, egoitza-baimen baten hasierako eskaera egin nahi duen atzerriko pertsonak derrigorrezko bisarik ez duenean, aipaturikotik aske utzi dadin eskatzea ahalbidetzen du ezohikoki (izaera beliko, politiko, etniko edota bestelako istilu edo gatazkaren bat gertatzen ari den inguruetatik datozen atzerriko pertsonak, osasun-laguntza eskatzen duen gaixotasun edo ezintasunen bat izanik beren jatorrizko herrialdera bisa lortzera itzultzeko ezintasuna dutela egiaztatuta dutenak, etab.).

i **Gobernuaren Ordezkaritza**

i **Polizia Komisaldegia edo Atzerritarren Bulegoak** (*Ikus 37. orrialdea*)

Egoitza Iragankorra

